



INFORMAZIO ORRIA

Gure bulegoa utzi baino lehenago, irakurri mesedez informazio orri hau

Gipuzkoako Ogasunarekin bide elektronikoa erabiltzera behartu dagoen entitate bati alta eman diozu oraintxe bertan, hau da, idatziak eta aitorpenak bide telematikoaren bidez aurkeztu behar dituzu eta Foru Ogasunak jakinarazpen elektronikoak bidaliko dizkizu, postaren orde. Beraz, gogorarazten dizugu, hemendik aurrera, entitatea ordezkatzeko ahalmena duen norbaitek nahitaez sinadura elektronikoa erabili beharko duela eskaerak egiteko, nahiz zerga ereduak bidaltzeko (aitorpenak aurkezteko) edota Ogasunak bidaltzen dizkion jakinarazpenetan sartu ahal izateko.

Auto-likidazioak, aitorpenak edo zerga ondorioak dituzten bestelako agirien harira, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arauaren 204. artikuluan ezarritakoari jarraituz, horiek bitarteko telematikoen bidez ez aurkezteak 1.500 edo 3.000 euroko isuna ekar lezakeen zerga arloko arau-haustetzat hartzen da.

Jakinarazpen elektronikoei dagokionez, horiek jasotzen direla bermatzeko, abisu bat helaraziko da aurrez entitateak berak edo ordezkariak adierazi duen posta elektronikoaren helbidera. Oraindik zure helbide elektronikoa 036 ereduaren eman ez badiguzu, lehenbailehen adieraztea aholkatzen dizugu. Behin sinadura elektronikoa izanda – edo, badagokio, ordezkariak inskribatuta – Gipuzkoatarian ere e-posta helbidea eman ditzakezu honako helbidean: gipuzkoa.eus/ogasuna/harremanetarakodatuak. Nola nahi ere, **oso garrantzitsua da Departamentuak zure entitatearen helbide elektroniko eguneratua izatea.**

Halaber, jakin dezazun hauetako pertsonaren bat bazara...

- **Legezko ordezkaria.** Herritarren Arretarako leihatilan momentuan eman diezazukegu pasahitz operatibo pertsonala eta entitatearen ordezkariak eratuko dizugu; horrela, entitatearen izenean gaur bertan bide telematikoa erabil dezakezu Departamentuarekin harremanetan jartzeko. Entitatea erregistroren batean inskribatzeko beharra izanez gero, aipatutako ordezkariak zerga alorrekoa bakarrik eta behin behinekoa izango da, gehienez, sei hilabeteko indarraldiarekin.
- **Ordezkari profesionala.** Gipuzkoataria-ren bitartez, 001-P ereduarekin, ordezkarien erroldan alta eskaera egin behar duzu; eraketa eskritura erantsi behar da, nahiz eta erregistroan inskribatuta ez egon. Departamentuak behin behineko ordezkariak onartuko du, gehienez sei hilabeteko indarraldiarekin eta 1., 2. eta 3. edukiekin. Horrela grabatu, mesedez.
- **Entitatearekin lan harremana duena** (gerentea, zuzendari finantzarioa,...) Herritarren Arretarako leihatilan, momentuan, pasahitz operatibo pertsonala emango dizugu; horrekin, 001 ereduaren bitartez, zerga ordezkarien erroldan alta eska dezakezu, aurreko puntuan, ordezkari profesionalentzako, aipatuko ditugun baldintza berberetan.
- **Errekadista edo mandataria.** Mesedez, emaiozu informazio orri hau zure bezeroari.

Informazio gehiago:

- 902100040 telefonoan
- <http://www.gipuzkoa.eus/ogasuna> web orrialdean
- [Gure bulegoetara](#) bertaratuz.